



LANKIDETZA-HITZARMENA, GASTEIZKO UDALAREN, ZUZENAK FUNDazioAREN ETA OSAKIDETZAREN ARABAKO ESI-AREN ARTEKOA, MINAREN UNITATETIK BIDERATUTAKO PERTSONENTZAKO ARIKETA FISIKO EGOKITUAREN ORIENTAZIO-PROGRAMA GARATZEKO.

Gasteizen, 2025ko urriaren 17an

BILDURIK

Alde batetik, Ana Rosa Lopez de Uralde andrea, Gasteizko Udaleko Kirolaren, Osasunaren eta Garapenerako Lankidetzaren Saileko zinegotzi ordezkaria.

Bestetik, Miren Itxaso Carrillo Díaz andrea, con DNI [REDACTED].515-K, ZUZENAK FUNDAZIOKO lehendakaria (IFZ: G01390053).

Bestetik, Enrique Báez Hernández jauna (NAN: [REDACTED].197-F, OSAKIDETZAKO ARABAKO ESiko zuzendari gerentea (IFZ: S5100023J).

Ordezkariek, elkarri nahikoa gaitasun juridikoa aitortzen diotela, hitzarmen hau izenpetzen dute, zeinek bere erakundearen izenean, eta hau

ADIERAZTEN DUTE

LEHENA

- Osasun Publikoari buruzko urriaren 4ko 33/2011 Lege Orokorrak honako hau xedatzen du II. kapituluko ("Osasuna sustatzea") **16.1 artikuluan**:

"1. Osasunaren sustapenaren barruan, gizabanakoen ezagutzak eta gaitasunak areagotzeko ekintzak sartuko dira, bai eta gizarte-, lan-, ingurumen- eta ekonomia-baldintzak aldatzeko ekintzak ere, norbanakoen eta taldeen osasunean eragin positiboa izan dezaten".

16.4 artikuluan, berriaz, hau dio:

"4.- Gizarte-erakundeek osasuna sustatzeko jardueren garapenean parte hartu ahal izango dute. Administrazio publiko eskudunek herritarrek osasuna sustatzeko jarduketetan parte-hartze eraginkorra izan dezaten sustatuko dute, zuzenean edo



haiek biltzen diren edo ordezkatzzen dituzten erakundeen bitartez”.

BIGARRENA

- Euskadiko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren martxoaren 30eko 2/2023 Legeak **2. artikuluan** ezartzen duenez, euskal botere publikoek, beren eskumenen esparruan, jarduera fisikoa eta kirola egiteko eskubidea benetan gauzatzeko politika bat ezarriko dute, honako printzipio gidari hauei jarraikiz:

- **2.3d) artikulua:** “Jarduera fisikoa eta kirola sustatzea edonolako desgaitasuna duten herritarrengan”.

- **2.3.h) artikulua:** “Jarduera fisikoaren eta kirolaren bitartez osasuna bere dimentsio guztietan sustatzea eta babestea, arreta berezia jarrita kirolarien eta, bereziki, goi-errendimenduko kirolarien osasun mental eta psikologikoan.”

Era berean, **9. artikuluan**, jarduera fisikoa sustatzea aipatzen da helburutzat, termino hauetan:

“Administrazio publikoek jarduera fisikoa sustatuko dute jarduera hori ahalik eta jende kopururik handienara iritsi ahal izan dadin, eta sustapen hori honako helburu hauek lortzera bideratuko da:

- a) Pertsonen bizitza-kalitatea hobetzea.*
- b) Ongizate fisikoaren zein mentalaren hobekuntza.*
- c) Bizi-estilo osasungarriari eta adikzioen prebentzioari lotutako ohiturak hartzea.*
- d) Autoestimua eta autonomia pertsonala hobetzea.*
- e) Baterako jardunaren bidezko sozializazioa, integrazioa eta inklusioa, desgaitasun motaren bat duten pertsonen kasuan bereziki. f) Adinekoen gaitasun funtzionala, kognitiboa eta psikoafektiboa mantentzea.*
- g) Sedentarisismoak eragindako patologiei lotutako osasun- eta farmazia-gastua murriztea.*

Azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak —Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onartzen duena— honako hau ezartzen du **50.1 artikuluan**: “*Desgaitasunen bat duten pertsonak eta haien familiek eskubidea dute honako gizarte-zerbitzu hauek*



*jasotzeko: familiei laguntzeko gizarte-zerbitzuak, urritasunei eta desgaitasunen areagotzeei aurre hartzeko gizarte-zerbitzuak, norberaren autonomia sustatzekoak, informazio- eta orientazio-zerbitzuak, bizitokian bertan laguntza jasotzekoak, egoitza-zerbitzuak, norberaren inguruan bertan laguntzekoak, egoitzetan emateko zerbitzuak, kultur jarduerak, kirol jarduerak eta aisialdi eta denbora librekoak”; eta **51.8 artikuluan** hau xedatzen du: “Kirolak, kultur jarduerak, aisialdiko jarduerak eta denbora librekoak, ahal dela, instalazioen irisgarritasun unibertsalaren printzipioaren arabera gauzatuko dira, herritarren zerbitzura ezarritako baliabide arruntekin. Espezifikotasunak eta laguntza-premiak hala eskatzen dutenean soilik ezarri ahal izango dira zerbitzu eta jarduera espezifikoak, modu subsidiario edo osagarrian.”*

- Euskadiko Osasun Publikoaren azaroaren 30eko 13/2023 Legeak **3. artikuluan** zehazten du osasun publikoaren **kontzeptua**:

"Osasun publikoa da politika, programa, zerbitzu eta jarduketa jakin batzuen multzoa, helburua duena osasunaren determinatzaileen gainean jardutea, gaixotasunak prebenitzea eta herritarren osasuna eta ongizatea babestea eta sustatzea".

Eta **zioen azalpenean** zehazten duenez, Euskadiko Osasun Publikoaren Legeak honako hau lortu nahi du:

- “Osasuna politika guztietan” estrategia eta osasunaren determinatzaileen ikuspegia hartzea, osasunaren arloko munduko eta Europako lehentasunei jarraikiz. Zehazki, “osasuna politika guztietan” estrategiarekin lotutako Garapen Jasangarrirako Helburuak hartzen dira erreferentzia-esparrutzat.
- Herritarren osasuna eta ongizatea sustatzea, jarduketetan komunitate-orientazioa eta sektorearteko orientazioa lehenetsiz.
- Administrazio publikoen arteko elkarlana sustatzea herritarren osasunaren eta ongizatearen arloan, batez ere tokiko esku-hartzeetan.
- Komunitateak, gizarte-mugimenduak eta gizarte zibila sartzeari esku-hartzeen plangintzan, garapenean eta ebaluazioan.
- Politika sektorialek herritarren osasunean eta ingurune fisikoan dituzten eraginak aztertzea. Bereziki, giza osasunaren, ingurumenaren eta animalien osasunaren arteko

lotura; hala aitortzen baitu “one health/osasun bakarra” izeneko ikuspegiak.

- Eta, elkarlanaren ikuspegitik, administrazio publiko guztiak koordinatuta eta inplikaturik dauden beste eragile batzuekin batera lan egitea, herritarren osasuna babesteko, osasuna eta ingurune eta bizimolde osasungarriak bultzatzeko eta herritarrengan eragina duten osasunaren determinatzaileetan eragin positiboa izateko.
- Oinarriak ezartzea osasun-larrialdien, epidemien eta pandemien prebentziorako, detekzio goiztiarrerako, zaintzarako eta kudeaketa eraginkorrerako.
- Osasun Publikoaren Euskal Institutua sortzea, osasun-arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren sailari dagozkion osasun publikoko jarduerak, prestazioak eta zerbitzuak modu integralean eskaintzeko.

Horregatik guztiagatik, eta lehen aipaturako legeetan adierazitako helburuak eta ARABako ESIko Minaren Unitatetik bideratutako pertsonentzako ariketa fisikoaren orientazio programaren proiektuan zehaztutakoak lortzeko, beharrezkoa da ZUZENAK FUNDAZIOAREKIN eta OSAKIDETZAREKIN lankidetzan aritzea, min kronikoa duten pazienteen bizitza hobetzeko.

Min kronikoa herrialde garatu guztietako osasun-arazoa da. Minaren kausa eta tratamendua bilatzea antzina-antzinatik izan da medikuntzaren helburua, baina 50eko hamarkadaren hasierara arte ez zen kontuan hartu minaren tratamendua ez zela nahikoa; John Bonicak ohartarazi zuen horretaz, eta arazo hori zuzentzeko lau neurri proposatu zituen. Harrezkero, minean zentratutako oinarritzko ikerketa klinikoa nabarmen garatu da. Lehen mailako arretako profesionalek tratatzen dituzte sarri min kronikoa duten pazienteak, eta beste espezialitate eta jakintza-arlo batzuen beharra ere izaten dute, minaren konplexutasun edo espezifikotasunagatik, hala nola anesthesiologia, zainketa aringarriak, fisioterapia, barne-medikuntza, neurologia, neurokirurgia, onkologia, psikologia, psikiatria, errehabilitazioa, erreumatologia eta traumatologia. Ebidentzia epidemiologikoak —gehien bat herrialde garatuetatik datorrena— erakutsi du min kronikoa osasun publikoko arazo orokorra dela.

Ariketa min kronikoa tratatzeko kostu txikiko eta eraginkortasun handiko tresna da, eta literaturak uste hori indartzen du. Ariketak onura ugari dakarzkie min kronikoa duten pazienteei; bereziki, mina gutxitzea eta harekiko tolerantzia handiagoa izatea, sistema

opioide endogenoaren aktibazioari eta maila zentrolean mina inhibitzen duten bideei esker.

Beste edozein medikamentu bezala, modu egoki eta indibidualizatuan agindu behar da, lotutako patologia muskulu-eskeletikoak, desoreka biomekanikoak eta pazientearen helburu funtzionalak kontuan hartuta. Erabiltzailearen lehentasunak, tartean diren kostuak eta agindutako ariketa mota egiteko aukera kontuan hartzea gomendatzen da. Pazientearen ariketarekiko atxikimendua haren motibazioaren araberakoa izango da, eta, beraz, garrantzitsua da ariketaren garrantziari eta ondorioei buruz hezteko, min kronikorako tratamenduaren zutabe garrantzitsuenetako bat dela azpimarratuz.

Hori guztia ikusita, Osasun Publikoaren urriaren 4ko 33/2011 Legearen **17.1 artikulua** xedatzen duenez, *“Administrazio publikoek osasun publikoaren arloko jarduerak garatzen dituzten entitate eta erakundeei lagunduko diete eta haiekin elkarlanean arituko dira, bereziki, osasun publikoko gaietan baztertuen edo diskriminatuen dauden taldeei dagokienez”*. Beraz, aurreko guztia kontuan hartuta, bidezkoa da aurreikusitako dirulaguntza izenduna hitzarmen honen bidez gauzatzea.

HIRUGARRENA

- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen **72. artikulua** honako hau xedatzen du:

“Toki-korporazioek lagundu egiten dute auzotarren interes orokorren edo arlokoen alde egiten duten elkartearen garapena, beren jarduerari buruzko informaziorik ahalik eta zabalena ematen diete, eta beren ahalbideen baitan, baita herri-baliabideak erabiltzea eta beren jarduerak aurrera eramateko dirulaguntzetara iristea ere, eta korporazioaren kudeaketan auzotarren parte-hartzea bultzatzen dute, hori guztia 69. artikuluko 2. paragrafoan ezarritakoaren arabera. Esandakoaren ondorioetarako, herri-onurako jo daitezke”.

- Euskadiko Osasun Publikoaren azaroaren 30eko 13/2023 Legearen **34. artikulua**, berriz, hau xedatzen du:

1. *Udalei eta gainerako toki-entitateei dagokie, bakoitzak bere lurralde-eremuan eta Euskadiko Osasun Planaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko gidalerro eta*



programen esparruan, toki-araubidearen legerian eta aplikatzekoa den araudi sektorialean ezarritako eskumen propioak baliatzea.

2. *Gainerako administrazio publikoen eskumenei ezertan eragotzi gabe, udalei dagokie, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearekin bat etorritik, osasun publikoa sustatzea, kudeatzea, defendatzea eta babestea, bakoitzak bere lurraldean, eta, zehazki:*

a. *Osasuna babesteko eta sustatzeko programak eta planak garatzea, adikzioen prebentzioa barne."*

- Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen **17. artikulua** ezartzen ditu udalerrien eskumen propioak:

1. *Lege honetan eta aplikatu beharreko legerian xedatutakoaren esparruan, udalerriek honako esparru material hauetan erabili ahal izango dituzte eskumen propioak:*

19) *Kirola eta kirol-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kirol-ekipamenduak kudeatzea.*

10) *Osasun publikoa sustatzea, kudeatzea, defendatzea eta babestea."*

LAUGARRENA

- ZUZENAK FUNDAZIOAK eta OSAKIDETZAKO ARABAKO ESIk helburu hauek dituzte, besteak beste: min kronikoa duten pertsonen bizi-kalitatea eta ongizatea hobetzea, ariketa fisikoaren bidez; pazientei ariketa fisikoarekin lotutako tresnak eta ezagutza espezifikoak ematea, ariketa fisikoko errutinak modu autonomoan egin ahal izan ditzaten; paziente ez-aktibo horiek ariketa fisikoarekiko atxikimendua izan dezaten eta horrek ekar diezazkiekeen onurak senti ditzaten lortzea.

- Hala Gasteizko Udalak nola ZUZENAK FUNDAZIOAK eta ARABAKO ESIk helburu komun hau dute: Gasteizko ESIko Minaren Unitatera atxikita dauden gaixoen kolektiboaren osasun publikoa hobetzen lagunduko duten praktikak eta proiektuak sustatzea.

- Gasteizko Udaleko Osasun Publikoaren Zerbitzuak dituen interes orokorreko eta sozialeko helburuak betetzeko, egokitzen jo da ZUZENAK FUNDAZIOAREkin eta

ARABAKO ESIrekin lankidetzan aritzea "MINAREN UNITATEAK BIDERATUTAKO PERTSONENTZAKO ARIKETA FISIKO EGOKITUAREN ORIENTAZIO PROGRAMA" izeneko proiektua —I. Eranskinean dagoena— gauzatzeko.

Hitzarmen honen helburua da min kronikoa duten eta programan parte hartzen duten pertsonak udal instalazio-sarera atxikitzea, Gasteizko Udalak jarduera fisikoa egiteko dituen udal-baliabideak erabiliz.

Horregatik guztiagatik, ondoriozta daiteke hitzarmen hau sinatzeak kudeaketa publikoaren efizientzia hobetzen lagunduko duela, bitarteko eta zerbitzu publikoak batera erabiltzea erraztuko, onura publikoko jarduerak egiten lagunduko eta aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-egonkortasunari buruzko legeria beteko (Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 48. artikulua).

BOSGARRENA

Horien haritik, Gasteizko Udalak, ZUZENAKek eta ARABAKO ESIk uste dute elkarren arteko lankidetzak ondorio onuragarriak izan ditzakeela Gasteizko herritarrentzat eta, horrenbestez, dirulaguntza izendunerako hitzarmen bat formalizatuko dute; Tokiko Gobernu Batzarrak 2025ko urriaren 17an egindako ohiko bilkuran onetsi da hitzarmenaren testua.

Azaldutakoa ikusirik, hitzarmen hau izenpetzea erabaki dute alderdiek. Honako klausula hauen arabera arautuko da:

KLAUSULAK

LEHENA.- HITZARMENAREN XEDEA

Hitzarmen honen xedea da laguntza eskaintzea Minaren Unitateko pazienteen bizikaltatea hobetzeko kirol-jarduera fisikoen programa garatu eta gauzatzeak eragindako gastuak finantzatzeko.

Lankidetzak hiru jarduera-ardatz barne hartzen ditu:

- **Maila teknikoan**, ZUZENAK FUNDAZIOAK ARABAKO ESIko MINAREN UNITATEarekin batera antolatzen duen kirol-jarduera fisiko espezifikoak sustatzeko



programa baten bidez. Osasun-arloko eta ariketa fisikoaren arloko profesionalen arteko lan koordinatua da, Minaren Unitatean dauden pertsona jakin batzuen artean jarduera fisikoaren praktika sustatzeko eragile gisa, pertsona horien premia partikularrak kontuan hartuta.

- **Maila materialean**: Gasteizko Udalaren Kirol Zerbitzuaren JARDUERA FISIKO EGOKITURAKO ZENTROA (Gabriel Celaya kalea 15) erabiltzen utziz ZUZENAK FUNDAZIOAK minaren unitatetik bideratutako pertsonentzako ariketa fisiko egokituaren orientazio-programa garatu ahal izan dezan.

Proiektuaren 2. FASEko azken saioan programatutako jardueri dagokienez, ZUZENAK FUNDAZIOAREN esku jarriko dira Gasteizko Udalaren instalazio-sareko ariketa-gelak, kirol-instalazioen arduradunek aldez aurretik baimena emanda, eta egun eta ordu jakin horietan libre egotearen mende geratuko da. Horretarako, astebete lehenago jakinarazi beharko zaio arduradunari zenbat egunetarako eskatzen den, eta zenbat lagun joango diren.

Gasteizko Udalak programa hau abian jartzeko erabiliko du adierazitako espazioa, baina instalazioak baliatu ahal izango ditu Kirol Zerbitzuak programatutako jarduerak egiteko.

- **Maila ekonomikoan**, udal ekarpenaren bidez, hitzarmen honetan deskribatutako programa garatzeak eragindako gastuak finantzatzeko, bai eta lokalak hitzarmen honetan jasotako kirol praktika burutu ahal izateko egokitzeko beharrezko diren jarduerak eragindako gastuak ere. Hitzarmenaren aurrekontua, gehienez, **35.000,00€** eurokoa da.

BIGARRENA.- HITZARMENAREN IRAUPENA

Akordio-konpromiso hau 2025ko irailaren 2tik 2026eko irailaren 1era arte izango da indarrean.

HIRUGARRENA.- UDALAREN EKARPENAREN ZENBATEKOA ETA EGOZTEN ZAION AURREKONTU-KREDITUA

Hitzarmenaren gehieneko aurrekontua **HOGITA HAMABOST MILA EURO (35.000 euros)** da, Osasun Publikoaren Zerbitzuaren 4. kapituluko 2025/243002.2315.48198

partidaren kargura.

LAUGARRENA.- ZUZENAK FUNDAZIOAREN ETA ARABAKO ESIKO MINAREN UNITATEAREN KONPROMISOAK

Hitzarmen honen bidez, **ZUZENAK FUNDAZIOAK** konpromiso hauek hartzen ditu bere gain:

1.- Hitzarmen honen xede diren pertsonentzako kirol-programa teknikoa garatzea, hitzarmen honekin batera doan **I. Eranskinaren** arabera: "ARABAKO ESI-KO MINAREN UNITATETIK BIDERATUTAKO PERTSONENTZAKO ARIKETA FISIKO EGOKITUAREN ORIENTAZIO-PROGRAMA". Programaren xedea da Minaren Unitateko paziente ez-aktiboek beren jokabideak aldatzeko eta jarduera fisikoa erregulartasunez egiteko laguntza jasotzea, osasuna hobetzeko bitarteko gisa. Zuzenak Fundazioak finantzatutako jarduera burutzeko betebeharra izango du, eta jasotako funtsak horretarako baliatzekoa, hitzarmenean adierazi bezala.

2.- Osasun Publikoaren Zerbitzuari astebete lehenago ematea fase bakoitzean parte hartuko dutenen zerrenda. Talde bakoitzean parte hartzen duten pertsona-kopurua adieraziko da, generoaren arabera bereizita.

2.1.- Kirol Zerbitzuari generoaren araberako parte-hartzearen adierazleak ematea; bereziki, udal-instalazioen sarearen erabilerarekin lotutako 3. faseko datuak.

3.- Jarduera edo zerbitzuengatik kuota bat ezartzea, antzeko jardueretarako merkatuan dauden parametro eta prezioen antzekoa.

4.- Kirol alorreko teknikariekin lankidetzan aritzea, behar duten kirol-modalitateei buruzko orientazio berriazko eta jarraitua eskaintzeko.

5.- Kirol-jardunari eta beste praktika osasungarri batzuei buruzko informazioa zabaltzeko lana egitea, pazienteei ariketa fisikoarekin lotutako tresnak eta berriazko ezagutzak emanez.

6.- Izen-emateak kudeatzea, bideratze-txostenean xedatutakoaren arabera.

7.- Minaren Unitateak bideratutako pazienteen atxikimenduaren jarraipena egitea. Irizpide hori proiektuaren ebaluazio-adierazlea izango da, planteatutako helburuetako bat baita.



8.- Erabiltzen diren instalazioak higiene- eta osasun-baldintza egokietan mantentzea.

9.- Ezarritako egiaztatze-, jarraipen- eta ikuskatze-ekintzen mende jartzea, bai eta Gasteizko Udaleko Kontu Hartzailletza Nagusiari dagozkion finantza-kontrolerako ekintzen mende eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari nahiz eskumena aitortua zaien bestelako organoei buruzko legedian aurreikusitakoen mende ere. Diruz lagundutako proiektuaren jarraipena egite aldera, eskatutako agiri guztiak eman behar zaizkio Udalari.

10.- Erantzukizun zibileko aseguruia izatea. Gasteizko Udalak udal instalazioaren erabilera lagatzen du; beraz, ez du bere gain hartuko —ez zuzenean ez subsidiarioki— egite edo ez-egitearen ondorioz entitatearen jarduerak eragin ditzakeen kalte material edo pertsonalen gaineko inolako ardurarik. Entitateari dagokio erantzukizun zibileko aseguru bat kontratatzea, eta ondasunaren lagapenak irauten duen bitartean indarrean izatea. Aseguru horrek barne hartu behar du lagatako lokalean sor daitezkeen kalteengatiko erantzukizun zibil lokatiboaren klausula, eta bertan adierazi beharko da Gasteizko Udala aseguratu gehigarria izango dela harekin lotuta erakundeak egiten duen jarduera-zatiari dagokionez, hirugarrenaren izaera galdu gabe.

11.- Programatutako jarduerak egiteko behar den materiala erosi eta ematea, eta Kirol Zerbitzuari baimena eskatzea Udalaren kirol-instalazioetan egiturazko aldaketak egin behar badira, adibidez, horma-barrak jarri behar badira. Kirol Zerbitzuak egokitzen jotzen badu, Zuzenak Fundazioari dagokio egiturazko aldaketak izan dituen espazioa aldaketak egin aurretik zegoen bezala uztea.

12.- Helburu berarekin beste administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatu nazional nahiz nazioartekoren batek emandako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik jasoz gero, entitate emaileari jakinaraztea, bai eta zertarako baliatu diren ere. Jakin bezain laster eman beharko da horren berri.

13.- Entitatearen betebeharra da Gasteizko Udala proiektuaren erakunde laguntzailea dela iragartzea, proiektuarekin lotuta hedatzen diren sustapen-euskarri eta komunikazio guztietan.

14.- Proiektua gauzatzean aldaketarik egiten bada, Gasteizko Udaleko Osasun



Publikoaren Zerbitzuari jakinaraztea.

15.- Euskararen erabilera sustatzeko konpromisoa hartzea kirol-jardueretan zein programari buruzko sustapenean eta informazioan.

16.- Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzko ekainaren 30eko 8/2022 Legeak programa honetan parte hartzen duten langileei eskatzen dien gaikuntza errespetatzea.

17.- Hitzarmen hau amaitutakoan, Gasteizko Udaleko Kirol Zerbitzuari programara bideratutako kirol-espazioan dagoen materialaren inbentarioa ematea.

ARABKOA ESI-ren konpromisoak

1.- Minaren Unitatean egindako elkarrizketa klinikoaren ondoren, ZUZENAK FUNDAZIOARI bidalitako **bideratze-txosten** baten bidez, unitate horretan dauden eta programan parte har dezaketen pertsonak identifikatu eta bideratzea.

2.- Bideratzeen asteroko erregistroa eramatea.

3.- ZUZENAK FUNDAZIOAren eta Gasteizko Udaleko Osasun Publikoaren Zerbitzuarekin lankidetzan aritzea proiektuan aurreikusitako jarduerak gauzatzeko, eta jardueren eta proiektuaren gauzatze-mailaren jarraipena egiteko beharrezkoa den informazioa ematea.

4.- Jarduketan jarraipena egitea, aurrez aurreko edo telefono bidezko ondoz ondoko kontsulten bidez.

5.- Alderdi hauen balorazioa egitea: bideratutako subjektuen kopurua, hasieran baloratutako subjektuak, proposatutako jardueran parte hartzen hasten diren subjektuak eta jarraipen-hitzorduetara joaten diren subjektuak.

6.- Gasteizko Udaleko Osasun Publikoaren Zerbitzuaren egiaztatze-, jarraipen- eta ikuskatze-jardueren mende jartzea, ezartzen diren baldintzetan.

7.- Organo eskudunei beharrezko informazioa ematea, programaosatzen duten pertsonen jarraipena egin dezaten.

8.- Jasotako eta ZUZENAK FUNDAZIOAri helarazitako datuei dagokienez, osasunari eragiten dioten heinean bereziki babestutako datuak direla kontuan hartuta (DBEO, 9.

artikulua), arau hauetan xedatutakoa betetzea: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2026ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra, Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, eta Datu pertsonaletarako jabetza publikoko fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legea.

BOSGARRENA.- GASTEIZKO UDALAREN KONPROMISOAK

Hitzarmen honen bidez, Gasteizko Udalak konpromiso hauek hartzen ditu bere gain:

1. Egitaraua osatzeko lankidetzak eta aholkularitza eskaintzea, Kirol Zerbitzuko eta Osasun Publikoaren Zerbitzuko teknikarien eskutik.
2. Udalaren kirol instalazioak erabiltzen uztea, kirolaren alorreko programa teknikoa egin ahal izateko. Jarduera Fisiko Egokiturako Zentroa bazter utzita, Gasteizko instalazioen sareko edo ariketa-gelak erabili ahal izateko (egun eta orduak adierazita), kirol instalazio horren arduradunaren aurretiazko baimena beharko du, eta egun eta ordu jakin horietan libre egotearen mende geratuko da. Horretarako, astebete lehenago jakinarazi beharko zaio arduradunari zenbat egunetarako eskatzen den, eta zenbat lagun joango diren.
3. Udalaren instalazio eta ekipamenduak erabiltzeagatik ordaindu beharreko tasa eta/edo prezio publikoak ordaintzetik salbuestea —betiere erabilera lehen aipaturiko jarduerarekin lotuta badago—, 8.4 zenbakiko Ordenantza Fiskalaren 7. eta 9. artikuluan xedatutakoaren haritik. Izan ere, hitzartutako jarduerak dituen ezaugarri sozial bereziek interes handikoa bihurtzen dute hiriarentzat zein bertako biztanleentzat. Prezioen salbuespena ordenantza fiskaletan adierazitakoaren arabera izapidetuko da.

Programaren 3. fasea abian jartzean, eta kirol-jardunari jarraipena emateko, Kirol Zerbitzuak doako txartel-kopuru mugatua emango du Gasteizko instalazio-sareko ariketa-geletan sartzeko, eta Kirol Zerbitzuak programatutako jarduera gidatuko saio batean parte hartzeko aukera eskainiko du. Ekintza hori koordinatu egingo da Zuzenak Fundazioaren eta Gasteizko Udaleko Kirol Zerbitzuko teknikari baten artean.

4. Gehienez ere **35.000 €-ko** ekarpena egitea, 2025ko irailaren 2tik 2026ko irailaren

1era bitartean, hitzarmen honetan jasotako jarduerak garatzeko.

5. ZUZENAK FUNDAZIOAREN alde adostutako ekarpenaren zenbatekoa ordaintzea.

SEIGARRENA.- EKARPENA ORDAINTZEKO MODUA

Honela ordainduko da ekarpena:

Zenbatekoaren % 80 hitzarmena sinatzean ordainduko da, eta gainerako % 20a justifikazioa hitzarmen honen hamaikagarren klausulan ezarritako baldintzetan aurkeztu ondoren.

Onuradunak aurkeztutako aurrekontuaren zenbatekoa eta azkenean gauzatu eta justifikatutakoa bat datozela egiaztatuko du Osasun Publikoaren Zerbitzuak, justifikazioa egiaztatzeko fasean. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen **52. artikulua** xedatutakoari jarraituko zaio horretarako.

ZAZPIGARRENA.- PUBLIZITATEA ETA ZABALKUNDEA

Gasteizko Udalaren lankidetzaz adierazi beharko da hitzarmen honen xedearekin loturiko komunikazio, publizitate eta zabalkunde jardura orotan, baita edozein ekitaldi publiko edo pribatu —aurkezpenak, itxiera-ekitaldiak eta antzekoak— antolatzerakoan ere.

Leku publiko eta ikusgarri batean "Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz/Vitoria-Gasteizko Udala" erakunde-marka eta "VITORIA-GASTEIZ!" hiri-marka jarriko dira, proiektua finantzatzen duen entitate gisa, proiektuari lotuta argitaratzen den publizitatean eta dokumentazioan.

Horretarako, esteka honetan eskuratu daitezke marken bertsio eta formatu grafiko ezberdinak, baita horiek aplikatzeko kontuan hartu beharreko kontsiderazio orokorrak jasotzen dituen araudia ere: [Gasteizko Udalaren webgunea - Ikus-identitate korporatiboa - Marken erabilera](#)

Osasun Publikoaren Zerbitzuak —Protokolo eta Erakunde Komunikaziorako Zerbitzuaren laguntzarekin—, gainbegiratu egingo ditu jardueretan edo erabilitako publizitate euskarrietan markaren agerraldi guztiak, eta berariazko onespena emango du aldi bakoitzean.



Antolatzen diren komunikazio-jarduera guztiak (aurkezpenak, prentsaurrekoak eta abar), baita hitzarmen honen xede diren edukiaren eta jardueren inguruko publizitate-euskarriak eta material grafiko guztia ere, bi alderdiek adostuak izan beharko dute alde zuzenetik, edukiari zein itxurari dagokienez, eta edukiaren erantzule bakarra entitate onuraduna izango da.

Jarduera herritarrei zabaltzeko erabiltzen diren liburuxkek, kartekek nahiz beste edozein euskarrik bi hizkuntza ofizialetan egon beharko dute.

ZORTZIGARRENA.- HITZARMENAREN XEDE DEN PROIEKTUARI EGOTZI EZINEKO GASTUAK

Gastu hauek hitzarmenaren xede den proiektuari egotzi ezinezkoak joko dira:

- Entitate onuradunari zuzeneko etekin komertziala dakarkioten gastuak.
- Jarduerarako ezinbestekoak ez diren gastuak.
- Zeharkako zergak, berreskuratu edo konpentsatu badaitezke (adibidez, BEZa), eta errentaren gaineko zerga pertsonalak.
- Etxebizitzatik lanera egindako joan-etorriak, ez eta jarduerak sustatzeko egindakoak ere.
- Ondasunak hornitu edo zerbitzuak eskaintzarekin lotutako gastuei dagokienez, **gastuaren zenbatekoak Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak ezartzen dituen diru-kopuruak gainditzen** baditu —39.999,00 euro (BEZa sartu gabe) obra kontratueta, eta 14.999,00 euro (BEZA sartu gabe) gainerako kontratueta— ZUZENAK FUNDAZIOAK gutxienez hiru hornitzailei eskatu beharko die eskaintza egiteko, obra egin, zerbitzua eskaini edo ondasunak emateko konpromisoa hartu aurretik, eta hala egin duela egiaztatu beharko du, salbu eta haren ezaugarri bereziak direla eta merkatuan ez badago lan hori egin, zerbitzu horiek eskaini edo ondasun horiek hornitzen dituen aski erakunde. Aurkeztutako eskaintzen arteko aukeraketa —zeina dirulaguntzaren justifikazioan aurkeztu beharko baita, zortzigarren klausulan adierazi bezala— eraginkortasun eta ekonomia irizpideak aintzat hartuta egin beharko da, eta berariaz justifikatu, txosten bat aurkeztuz, proposamen ekonomiko onuragarriena aukeratzeko ez bada.



BEDERATZIGARRENA.- PROIEKTUA AMAITU OSTEAN AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Hauxe xedatzen du Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen **48.4. artikulua**:

“Hitzarmen batek barnean hartzen dituen finantza-konpromisoak hura sinatu duen administrazio publikoarentzat edo hari lotutako edo haren mendeko organismo publiko edo zuzenbide publikoko entitateetako edozeinentzat, aurrekontu-legerian xedatuta dagoena bete beharko da hitzarmen horren ondoriozko gastuekin eta hitzarmen horren arabera konprometitutako funtsekin zerikusia duten kudeaketan, justifikazioan eta gainerako jarduketetan”.

Hitzarmen honen xede den kirolaren alorreko programa teknikoa amaitzen denetik, gehienez ere 2025eko azaroaren 2ra arte (hots, programa amaitzen denetik 2 hilabetera arte), ZUZENAK FUNDAZIOAK jardueraren edo proiektuaren aurrekontuaren % 100 justifikatu beharko du, eta ez bakarrik Gasteizko Udalak emandako zenbatekoa.

Proiektua gauzatzen amaitu ez bada, edo proiektua aurkeztutako baldintza eta ezaugarrietatik oso desberdinetan gauzatu bada, gerta liteke zenbatekoak osorik edo zati batean itzuli behar izatea, Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorrean xedatutakoaren haritik.

Zuzenak Fundazioak jarduera egin izana justifikatu behar du, honako dokumentazio hau aurkeztearen bidez:

1. Jarduera justifikatzeko Txosten Teknikoa
2. Txosten Ekonomikoa
3. Programa gauzatzeko gaitutako eremuaren inbentarioa.

1) Proiektua egin dela justifikatzeko Txosten Teknikoa:

• Bertan hitzarmen honen indarraldirako planteatutako jarduera fisiko eta kirol-jardueren garapena zehaztu beharko da, gutxienez honako hauei buruzko azalpenekin:

- Sarrera; aurkitutako errealitatearen azalpena.
- Egindako jardueren oroit-idazki zehatza.



- JARDUEREN zerrenda: burututako jardueren zerrenda eta horien ezaugarriak.
- Jarduera bakoitzaren izen-emateei eta bertaratzeari buruzko datuak.
- Parte-hartzaileei buruzko datuak, generoaren, adinaren eta mina eragiten duen patologiaren arabera bereizita, aurreko denboraldietako historiko batekin.
- Adierazleen bilakaera.
 - Partaideen atxikimendu-maila ariketa fisikora, programa amaitu ostean.
 - Programan egondako bajak, generoaren eta adinaren arabera.
 - Partaideek programa hasi aurretik eta amaitu ostean duten minaren pertzepzioari buruzko datuak.
- Entitateak sustatutako beste informazio- edo dibulgazio-jarduera batzuen jarraipena.
 - Atzemandako gorabeherak.
 - Balorazioa, eta hobekuntza-proposamenak, 2026-2027 denboraldiari begira
 - Euskararen erabileraren jarraipen-fitxa. Web-orri honetan eskura daiteke eredua:

<https://www.vitoriagasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/es/78/27/97827.pdf> .

Memorian edo azken txostenean berdintasun-klausulei buruzko eskakizun eta baldintzak bete direla egiaztatzen duten datuak aurkeztu beharko dira.

2) Hitzarmena betetzeak ekarritako gastuak justifikatzeko txosten ekonomikoa.

Hitzarmenean aurreikusitako eta aldean finantza-ekarpenen bidez ordaintzeko moduko gastutzat joko dira indarrean dagoen araudiaren arabera behar bezala justifikatutakoak eta hitzarmena likidatzen den egunerako ordainduta daudenak, beharrezko badira eta zalantzarik gabe hitzarmenaren izaerari eta xedearen garapen normalari badagozkie.

-Proiektuari dagozkion gastuen egiaztagirien zerrenda. Atal hori proiektuari dagozkion gastuak justifikatzeko bete beharko da. Proiektuaren gastuen artetik, Udalarekiko hitzarmenari egozten zaizkion gastu **guztien** egiaztagirien zerrenda sailkatua eta ordenatua, bertan adierazita: hornitzailea eta nori egozten zaion, zenbatekoa, jaulkipen-data eta **ordainketa orriz orri, sinatuta eta zigilatuta**.

Jardueran egindako gastuen egiaztapena, jatorrizko fakturen eta merkataritzako trafikoko



juridikoan froga-balio baliokidea edo eraginkortasun administratiboa duten gainerako agiriaren bidez, bai eta horien ordainketa egiaztatzen duten agiriak ere.

Eskudirutan ordaintzekotan, legez ezarritako mugapena aintzat hartu beharko da —webgune honetan kontsulta daiteke: www.agenciatributaria.es—.

.- Jardueraren **diru-sarreraren eta gastuen balantzea**. Hitzarmenak xede duen proiektuari egotzitako diru-sarreraren eta gastuen balantzea.

- **Langile-gastuak eta Gizarte Segurantzakoak**. Hitzarmen honek xede duen proiektuari langile-gastuak egotzen bazaizkio, horiek justifikatzeko honakoa aurkeztu beharko da: proiektuari egotzitako langile-gastuen eta gizarte segurantzakoen zerrenda, langile bakoitzaren izena, soldataren zenbatekoa, PFEZ atxikipena, langilearen konturako eta enpresaren konturako gizarte-segurantzako gastuak eta Udalaren ekarpenari egotzitako ehunekoa zehaztuta, eta erakundearen konturako nominak eta TC agiriak (egungo RNT eta RCL agiriak) erantsita —taula hori aurkezten duen erakundeak **datatu, sinatu eta** zigilatu aurkeztu behar da—, bai eta PFEZaren 110 eta 190 ereduak eta horien ordainketa-egiaztagirak zein Gizarte Segurantzaren ordainketa-egiaztagirak.

Justifikatzeko eskakizuna ez betetzea edo behar bezala ez justifikatzea sinatzaileetako batek bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzetzat jo ahal izango da, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 51. artikuluan ezarritako ondorioak ekar ditzake.

Dokumentazio hori aurrez aurre aurkeztu ahalko dira, Herriarrei Laguntzeko Bulegoetan, edo Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoan (esteka: <https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org>), bai eta legez aurreikusitako gainerako moduetan ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera. Agiriak euskarri digitalean aurkez daitezke, USB memoria, SD txartela, CD, DVD edo antzeko euskarriaren batean, PDF formatuan, eta digitalki sinatuta egon beharko dute nahitaez.

HAMARGARRENA.- EGIAZTATZE JARDUEREN MENDE JARTZEA ETA LAGUNTZEKO OBLIGAZIOA.

ZUZENAK FUNDAZIOA Udalaren Osasun Publikoaren Zerbitzuak aurrera daramatzan

kontrol eta egiaztatze-jardueren mende jartzen da, bai eta Gasteizko Udaleko Kontu-hartzailera Nagusiari dagozkion finantza-kontrola egiteko jardueren zein Herri Kontuen Euskal Epaitegiari buruzko otsailaren 5eko 1/1998 Legean aurreikusitakoak nahiz eskumena aitortua zaien bestelako organoei buruzko legedian aurreikusitako jardueren mende ere.

HAMAIKAGARRENA.- JARRAIPEN-, ZAINZA- ETA KONTROL-MEKANISMOAK

Hitzarmen honetan jasotakoaren jarraipena zuzen egin ahal izateko, jarraipen-batzorde bat eratuko da, eta gutxienez hiru aldiz bilduko da hitzarmena indarrean den bitartean. Gainera, ezohiko bilerak egin ahal izango dira, aldeetako batek hala eskatzen badu. Jarraipen-batzordea Gasteizko Udalaren Osasun Publikoaren Zerbitzuko teknikari batek, Gasteizko Udaleko Kirol Zerbitzuko teknikari batek, Arabako ESIko ordezkari batek eta ZUZENAK FUNDAZIOAREN ordezkari batek osatuko dute.

Horrez gain, ZUZENAK FUNDAZIOAK jarduera bakoitzean bertaratuen kopurua kontrolatu beharko du, generoaren, adinaren, patologiaren zein egokitze jotzen den beste edozein baremoren arabera banakatuta; datu horiek Gasteizko Udalari eman beharko dizkio, eta balia ahal izango dira, egoki irudituz gero, jendartearen zabaltzeko, estatistikak egiteko edo Udalak egoki jotzen duen beste edozertarako.

Mekanismo horrek ebartziko ditu hitzarmenaren interpretazioaren zein betekizunaren inguruan sor daitezkeen auziak.

HAURRAK ETA NERABEAK INDARKERIAREN AURKA ERABAT BABESTEA

Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurka erabat babesteari buruzko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoak honako hau ezartzen du 47. artikuluan: “Administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, kirolaren eta aisiaren eremuan ingurune seguru bat eratzeko jarduketak jasoko dituzten jarduketa-protokoloak arautuko dituzte, kirolaren eta aisiaren eremuan haurren eta nerabeen aurka izan daitezkeen indarkeria-egoerak prebenitzeko, garaiz detektatzeko eta esku hartzeko jarraitu beharko direnak. Protokolo horiek kirol- eta aisia-jarduerak egiten dituzten zentro guztietan aplikatu beharko dira, edozein dela ere haien titulartasuna, eta, betiere, kirol-errendimendu eta -teknifikazio handiko zentroen sarean, kirol-federazioetan eta udal-eskoletan”



Era berean, lege horren 48. artikuluan adierazten denez, adingabeekin kirol- edo aisialdi-jarduerak egin ohi dituzten entitateak behartuta daude aurreko artikuluan aipatzen diren eta administrazio publikoek kirolaren eta aisiaren eremuan ezarritako jarduketa-protokoloak aplikatzera; monitorizazio-sistema bat ezartzera, adingabeak babesteari dagokionez protokolo horiek betetzen direla ziurtatzeko; babes-ordezkararen figura izendatzera, adingabeek harengana jo dezaten beren kezkak adieraztera, eta ezarritako protokoloak zabaltzeaz eta betetzeaz arduratuko dena; baita dagozkion komunikazioak abiaraztera ere, haurren edo nerabeen aurkako indarkeria-egoera bat detektatzen bada.

HAMABIGARRENA: HITZARMENA ALDATZEA

Hitzarmen honetan sartutako proiektuen helburua, izaera edo baldintzak eraldatzen edo haiei eragiten dien gorabeheraren bat izanez gero, sinatzen duten erakundeek elkarri berariaz eta berehala jakinarazteko obligazioa dute.

Hasieran aurreikusitako eta hitzarmen honetan jasotako ekintzetan edozer aldatu, eraldatu edo ordeztu bada, Udalarik jakinarazi beharko zaio aldez aurretik, berak onetsi dezan. Bereziki, aurkeztutako proiektua bideraezin edo funtsean desberdin bihurtzeko edozein inguruabar.

HAMAIRUGARRENA.- IZAERA JURIDIKOA

Hitzarmen honek izaera juridiko-administratiboa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47.2.c) artikulua xedatutakoaren arabera, eta administrazio-zuzenbidearen mende egongo da, interpretatzeari eta garatzeari dagokionez.

HAMALAU GARRENA.- JURISDIKZIO ESKUDUNA

Hitzarmen honen inguruko edozein kontu —interpretazioa, aldaketa, eraginak, bertan beharra uztea— auzia sortuko balu, administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren eskumenekoa izango da.

HAMABOS GARRENA.- DATUEN BABESA

ZUZENAK FUNDAZIOAK, Arabako ESIk eta Gasteizko Udalak hitzarmen honek xede

